

**BEASAIN-BERGARA ARDATZA (GI-632)**

**DESKARGAKO GAINA SAIHESTEKO BIDEGIK  
TUNELEKO LANAK ENKANTERA ATERA DITU**

*\*Urretxu-Antzuola zatiaren eraikuntzak Gipuzkoako bide sarean dagoen punturik zailenetako bat gainditzea suposatuko du.*

*\*Eraikuntza lanek 68 milioi euroko aurrekontua eta 30 hilabeteko iraupena izango dute.*

*\*Beasain – Bergara ardatzak N-I (Bergara) eta AP-1 (Bergara) lotuko ditu, eta oinarritzkoa izango da Gipuzkoa barnealdeko eskualdeen arteko komunikazioak hobetzeko: Goierri, Urola eta Debagoiena.*

*\*Korridorea zabalik dago jada ibilbidearen erdira arte (Beasain-Zumarraga), eta aurten Zumarraga –Urretxu zatiaren eraikuntza lanak amaituko dira.*

**BEASAIN ETA BERGARA ARTEKO ARDATZA (DURANGO)**

**Zatia: URRETXU-LEGAZPI / ANTZUOLA (Deskargako tunela) zatia**

**Luzera: 2,7 kilometro**

**Udalerriak: Urretxu, Legazpi, Antzuola**

**Obra zibilaren aurrekontua: 68 milioi euro**

**Lanen hasiera: 2010**

**Burutzeko epea: 30 hilabete**

**Egitura nagusiak: -Antzuolako lotune erdia**

**-Urretxu-Legazpiko lotunea (zati bat)**

**-Deskargako tunela (680 metro)**

Beasain-Bergara (Durango) ardatza osatzeko prozesuan beste urrats bat egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Urretxu-Legazpi / Antzuola lotunearen zatiaren eraikuntza lanak enkantera atera ondoren. Bidegiren bitartez eraikiko den errepide zati horrek 2,7 kilometroko luzera du, 68 milioi euroko inbertsioa eskatuko du eta 680 metro luzera izango duen tunel bat eraikiko da, Deskargako gaina saihestearren, hori baita Gipuzkoako bide sarean dagoen punturik zailenetako bat.

Esku-hartze honek, ahalmen handiko errepide baten bitartez, Beasain-Bergara (Durango) zeharkako ardatzaren loturan erabateko aurrerapausoa suposatuko du. Ardatz berria zabalik dago bidearen erdira arte, Gipuzkoan barrena egiten dituen kilometroetan, Beasain eta Zumarraga artean hain zuzen ere. Eta aurki ainituko dira beste zatiaren lanak: Zumarraga-Urretxuko lotunea-Legazpi.

Beasain - Bergara ardatzak N-I (Beasain) eta AP-1 (Bergara) lotuko ditu eta Gipuzkoa barnealdeko (Goierra, Urola eta Debagoiena) eskualdeen arteko komunikazioak hobetzeko funtsezkoa izango da. Honen irekierak, Hegoaldeko Gipuzkoako "biribilgunea" (Gipuzkoako Foru Aldundia eraikitzen ari den ahalmen handiko errepideen sarea) deituriko amaiera suposatuko du.

### **Urretxu-Legazpi/Antzuola lotunea.**

Antzuola-Urretxu noranzkoko zatia, Ipurtikako ibarbidea pasa ondoren hasten den lekuan, Urretxu noranzkoko lotunearen kokapena egongo da. Honetan, autobideko bide-nagusia 680 metroko luzera izango duen Deskargako tunelean sartuko da, Deskargako gaina saihestuz.

Zubia igarota eta arroak bereizten dituen lerroa pasata, korridorea Mendiaratz erreka ezkerreko aldetik jaisten da, % 3,5eko gehieneko maldarekin, Urretxu-Legazpi lotunearekin batu arte. Lotune hori egun eraikuntza fasean dago eta Antzuolako norabideko eraikuntza fasearen amaierarekin osatuko da.

Deskargako tunelaz eta Antzuolako lotuneaz gain eraiki beharreko egitura nagusien artean bi gaineko igarobide, beheko igarobide bat, horma bat eta zenbait zeharko drainatze lanen eraikuntza lanak burutu behar dira.